



Kastrejanako zubia

Juan Manuel ETXEBARRIA

Egun baten, mutiko kaskondua nintzala, gurasoak Bilbo eta itxasoa ikusten eroan ninduen.

Itxasoa ikusi, funikularrez Artxandara igon, eta handik goitik aitak bere umetako Bilbo azaltzen eustan non zer egoan eta zer ez egoan esanaz.

Halako baten aitak, esku bata Enkarterrietarantz jasorik badinost:

—Ene! begiratu, han aurreko mendi ondoan Kastrejana dago eta han antzina «PRAKAGORRIAK» harrizko zubi bat egin ei eben.

—Zer esan dozu, Prakagorriak?

—Bai, PRAKAGORRIAK.

—Eta zer edo nortzuk ziran ba?

—Egia da, jakina; zuk ezin jakin txikia zara eta. Ba, begiratu; ipuin zaharrak dinoskunez, antzina deabrua eta bere laguntzaile «PRAKAGORRIAK» nahinondik ibiltzen ei ziran kristinauen arimak ostuten, eta beharri-zan gorrian aurkitzen ziranekana joaten ei ziran.

Gure Euskalerriko baserritarrak sarritan lan gogor eta luzeetan sarturik egoten ziran, ganaduak zirala, solo-be-

harrak zirala, basoko ekintzak zirala... beti egoan egon ere lanen bat gure baserrietan.

Euskaldunak gizon onak eta langileak ziran, sinismendunak eta fede handikoak.

Baina batzuetan banakaren batek beharrian handiren baten eraginez edo, txarto eginda egoala jakin arren, deabruaren laguntza eskatzen ei eben euren lanak egiteko.

Deabrua beti ei egoan prest laguntzeko, baina laguntzaren truke arimea eskatzen ei eutsen.

Arimea gauzarik handiena zan baina halan eta guztiz ere, larrialdietan, batek baino gehiagok eskeintzen ei eutsan arimea deabruari laguntza truke.

Baina gero izaten ziran izatekoak! euskaldun batek bere arimea galdurik ikusten eban bakoitzean, burua galdu eginik joango zan eleizgizon bategana eta arteak ere ez eban hartuko barriri arimea salbatu arte.

Eleizgizonei eskerrak, beti aurkitzen ei eben zeozer euren arimea betiko galdu ez egiteko.

Eta, hor, Kastrejanan ere, gure aititak-eta kontatzen euskuenez hauxe jazo ei zan:

Egun baten, Kastrejanako neska gazte eta polit bat Bilbo zaharreko jaialdi batera joan zan.

Jaiak hain ziran ederrak eta hain egozan ondo, konturatu barik denborea joan eta berandu egin jakon.

Arin ere arin joan zan etxerantz baina etxera orduko ia gautu egin jakon.

Larriturik heldu zan etxera eta helduaz batera gogor egin eutsien gurasoak abemarietako kanpaiak jo eta gero heldu zalako.

Neskeak, apal-apalik hartu ebazan gurasoen esanak, baina bere benetako ardurea iturriko uretan joatea zan; iturria urrun egoan eta ia-ia guztiz gaututa.

Nahi ta nahi ez iturriko ura ekarri behar zan eta neskea, gehiago pentsatu barik, jarroa hartu eta txapa-txapa abiatu zan iturrirantz.

Erreka ertzetik joian neskea arnasestu baten eta magalotsean. Iturria erreka bestaldean egoan eta zubia oraindino urrun.

Geroago eta larriago joian, arin egin gura baina bidea luze eta joanago eta artegago, ha zan larrialdia!

Neskea ederra eta polita bazan ere, errukarri aurkitzen zan eta erdi zoraturik, negar baten hasi zan.

Halakoren baten, zer egin ez zer esaten eban ere ez ekiala, hasi zan esaten ahots dardartsu batekin:

—Inpernuko deabruak ez deuste egingo hementxe zubi bat iturriko joan-etorria arinago egiteko?

Esan baeban ze, berehala agertu jakon deabrua kabalero bat legez praka gorriekin eta zaldi baten gainean.

Neskeari odolak ere ur egin jakozan zer jazoko ete zan pentsatuz eta deabruak hurreraturik esan eutsan:

—Zubia nahi badozu, egingo jatzu, baina horretarako zeure arimea emon behar deustazu!



Neskeak orduan larritasunaren larritasunaz non egoan ez zer esaten eban ere ez ekiala baietz erantzun eutsan.

Baietz esan eban une berean PRAKAGORRIZ bete zan inguru guztia eta deabruaren agindupean harrizko zubi bat egiten hasi ziran.

Han alkartu zan elia, dana zan PRAKAGORRIA, hona begiratu, horra begiratu, hara begiratu dana PRAKAGORRIA.

Danak eukien harri-tresnaren bat eskuetan. Han sortu zan harriotsa mailuotsa eta zaratotsa!

Deabruak hainbesteko laguntza ikusirik agindu gogor batez esan eutsen bere laguntzaileei:


—Argin batzuk hemen eta beste batzuk hortik zehar dagozan haitzetara, arin! Beste guztiok harritan eskuz zein lepoz baina danok lanera, txitik egin barik!

Ha entzutean, Prakagorri guztiak banandu egin ziran. Batzuk Oiz mendirantz, beste batzuk Dimako haitzerantz eta geratzen ziranak Gorbea ingururantz.

Danak ei ziran indartsuak eta batak baino besteak harri handiagoak ekarten ei ebezan. Kontuak atera zelako indarra eukiko eben, Prakagorri koxoren batek ere bostehun arroako harria ekarten ei eban seguru eta.

Ha zan ikustea! Sinistu ezinekoa! Une batetik bestera zubi zatiak eginda eta gitxien faltan dana egiteko.

Neskea bere senera etorri zanean eta zubia hain aurre-ra ikusi, jaurti eskuetako jarroa eta orpoetan har barik herriko parrokoarengana joan zan eta esan eutsan:



—Jauna!, jauna!

—Zer alabatxua?

—Honantxik eta honantxik deabruari arimea eskeini deusat.

—Hori egingo zenduan ba? Zuk egin dozu egitekoa! Holakorik!

—Bai jauna, bai; horixe egin dot baina ondo damututa nago!

—Tira ba, tira ba; holan hobeto. Baina ea, ez dago denbora galtzerik. Nik ezin deusut dana konpondu baina zure arimea salbatu nahi badozu hauxe egin behar dozu beste mutilok zubia amaitu orduko:

«Martian oilarragaz ibilitako oiloaren arrautzatik jaiotako oilar bat aurkitu behar dozu eta zubia egin orduko «kukurruku» egiten badau, salbauta zagoz».

Parrokoa, gauzak arintzeko, kanpandorrera igon eta kanpai hotsean hasi zan, laguntza-kanpaiak jotzen.

Herritar guztiak elezportalean alkartu ziran zer zan edo zer ez zan jakiteko eta laguntzeko.

Parrokoak kanpaiak joteari utzi eutsanean, kanpandoretik bertatik esan eutsen:

—Neska horren arimea arriskuan dago eta berak ondo daki zelango oilarraren «kukurrukua» entzun behar dan bere arimea salbatzeko. Zoaze beragaz eta ea danon arte aurkitzen dozuen oilar hori!

Joan ziran ba danak, neskea aurretik zala, baserririk baserri oilar berezi haren bila. Handik, hortik, hemendik, aurkitu aurkitzen ebezan oilarrak, baina ezin eben aurkitu parrokoak esandako modukorik.

Bestaldetik Prakagorriak zubia aurrera eroien eta ez jaken askorik falta guztiz amaitzeko.

Neskea arteak ere ezin eban hartu. Larri baino larriago egoan, egotekoa zan izan ere, bere arimea arriskuan egoalako.

Hilargiak geroago eta argi handiagoa eukan, zubian jo ta ke Prakagorriak, herriko guztiak zoraturik baterik bestera, txakurrak guztiak ahausika, oilarrak guztiak kukurrukuka..., baina benetako oilarra falta!

Deabrua, irribarreka, geroago eta pozago egoan eta ia-ia neskearen arimea beretzakotzat eukan eta zubia arinago amaitzeko bera ere harritan joan ei zan Oiz mendira.

Baina hasiak egin dirudiela eta eginak urre gorria, ia esperantza guztiak galdurik egozala, ez dabe aurkitzen ba parrokoak esandako moduko oilar bat!

Oilarra aurkitzea eta kukurruku egin erazotea, dana zan bat. Eskurik esku oilar hori, ha zan poza!

«Kukurruku» egin eban, bai, «kukurruku» indartsu bat neska, herritar eta Prakagorri guztien artean.

Zubia, harri baten faltan geratu zan. Prakagorri guztiak alde egin behar izan eben oilarra entzutean.

Deabruak berak ekarren azkenengo harria Oiz menditik Kastrejanarantz eta bidean etorrela entzun eban «ku-



... KUKURUKUUU!



JESSE-85

kurrukua». Une beratan podere barik geratu zan eta lepoz ekarren harri handi hori bertanbera utzi behar izan eban.

Deabrua sutan geratu zan zubia amaitu ezinda, eta amorruaren amorruez, eukan indar guztiarekin jo eban azkenengo harria eta bost hatzamarrak markaturik utzi ei eutsazan seguru, eta esaten dabenez, gaur ere, han ei dagoz hatzamar markok.

—Aita, ze ipuin polita! Baina gaur ez da egongo Prakagorriak ezta?

—Ez. Lehenagokoak sinistuten eben honango gauzetan baina gaur ez dago lehengorik. Gaur beste era bateko Prakagorriak dagoz beste era batera jantzita, bai, gorrotoz jantzita, armaz jantzita, ezbardintasunez jantzita... Bakea eta maitasuna dira gaurko Prakagorrien aurkago oilarra. «KUKURRUKU»!